

7 – APLIKATZEKO LEGERIA

1. SEKTORE ELEKTRIKOAREN ANTOLAMENDURAKO LEGEA

Energia elektrikoa hornikuntzarako ekoiztea, azaroaren 27ko Sektorre Elektrikoaren 54/1997 Legean araututa dagoen jarduera da (EBO 285. zkia, 97-11-28). Lege horrek helburu bat du oinarrian, eta Zioen Azalpenean ematen du aditzera: “*sektore elektrikoa arautzea, ohiko hiru helburuekin: elektrizitate hornikuntza bermatzea, hornikuntza horren kalitatea bermatzea eta kostua ahal den txikiena izan dadin bermatzea. Hori guztia, ahaztu gabe ingurumena babestu behar dela; izan ere, sektore ekonomiko honen ezaugarriak kontuan hartuta, ingurumena garrantzia berezia duen alderdia da*”.

Lege horrek, halaber, asmo liberatzailea dauka eta Espainiako ordenamendu juridikora sartzen ditu abenduaren 19ko 96/92/CE Direktibaren (Europako Legebiltzarra eta Batzordea) aurreikuspenak. Direktiba hori elektrizitatearen barne merkaturako Arauei buruzkoa da. Bestalde, Lege horrek arautu egiten ditu Industria eta Energia Ministerioak eta elektrizitate enpresa nagusienek hitzartutako protokoloaren printzipioak (1996ko abendua).

Sektorre Elektrikoaren Legeak 1. artikuluan du adierazia bere xedea: “*energia elektrikoaren hornikuntzarako jarduerak; hau da, sorkuntza, garraioa, banaketa, merkaturatzea, elkartrukeak (erkidegoartekoak eta nazioartekoak) eta sistema elektrikoaren kudeaketa ekonomiko eta tekniko*”. Beraz, parke eolikoek, energia elektrikoa sortzen dutenez, Lege honen aplikazio eremuaren barne daude.

Lege horren IV. Tituluan energia elektrikoaren ekoizpena arautzen da, eta 21. artikulua (erregimen arrunterako artikulua) eta 28. artikulua (erregimen berezirako artikulua) diote administrazio baimena behar dela energia elektrikoa ekoizten duten instalazioak eraiki, ustiatu, aldatu, eskualdatu eta ixteko. Baimen hori ematea Autonomia Erkidegoari dagokio.

Energia elektrikoa ekoizteko instalazioentzako baimena eskatzen dutenek, eta instalazio horiek erregimen berezian badaude (instalaturako potentzia 50Mw-ekoa baino altuagoa dutenean), ziurtatu beharko dute proposaturako instalazio horien baldintza teknikoak eta segurtasunezkoak egokiak direla, ingurumena babesten dutela eta gaitasun tekniko, legal zein ekonomiko egokiak dituztela, burutuko den ekoizpen

motarako. Eta baimena lortu ondoren, baimen hori ematea eragin zuten baldintzen informazioa eman beharko diote, aldian-aldian, administrazioari.

Bestalde, hirigintza planekin koordinatzearen, aipatu legearen 5-1 artikulua hau dio: *“Energia elektrikoa garraiatzeko edo banatzeko instalazioak urbanizagarria ez den lurzoruan badaude, edo urbanizagarria ez den lurzortik igarotzen badira, plangintza egiterakoan kontuan hartu beharko da dagokion lurralde antolamendurako tresna. Era berean, instalazio horiek lurzoru urbanoan edo urbanizagarrian badaude, plangintza aintzat hartu beharko da, dagokion lurralde antolamendurako tresnan; gainera, instalazio posibleak zehaztu egin beharko dira, eta lurrak modu egokian kalifikatu. Horrez gain, adierazi beharko da, bi kasuetan, zer lurzoru behar diren instalazio berriak ezartzeko eta daudenak babesteko”*.

Bestalde, 52. artikuluan erabilera publikokoak izendatzen dira energia sortu, garraiatu eta banatzeko instalazio elektrikoak.


Sektore Elektrikoaren Legeak asko lagundu du energia eolikia garatzen. Lege honek balio die energia eolikoarekin eta 50 MW baino gutxiagorekin elektrizitatea ekoizten dutenei horien ekoizpena sistema elektrikoan sartzeko; eta hori, eskaintza sistemari lotu gabe eta eskaintza prezioaren gaineko primarik jaso gabe. Prima horren helburua da arrazoizko errentagarritasun tasak lortzea, energia hori erabiltzeak ingurumenari egiten dion mesedearen mailakoak. Zentzu horretan, Sektore Elektrikoaren Legeak abenduaren 23ko 2818/1998 Errege Dekretua garatzen du. Errege Dekretu horretan agertzen dira erregimen berezian sartzeko aurrebaldintzak eta prozedurak, dagokion erregistroan izena emateko prozedurak, energia entregatzeko baldintzak eta erregimen ekonomikoa.

2. LURRALDEAREN ANTOLAMENDUA EUSKADIN. MAIATZAREN 31KO 4/1990 LEGEA

Eusko Jaurlaritzak, 1990eko maiatzaren 31ko Osoko Batzarrean, Lurralde Antolamendurako Euskadiko 4/1990 Legea onartu zuen, dagokion eskumen egitura errespetatuz. Eskumen egitura hori honako hauek osatzen dute: 1978ko Espainiako Konstituzioaren 148.1.3. artikulua, Euskadiko Autonomia Estatutuaren 10.31 artikulua eta azaroaren 25eko 27/83 Legea. Lege horretan, Autonomia Erkidegoko Erakundeen Komunen eta Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko harremanak arautzen dira. Lurralde Antolamendurako Euskadiko Legea lurren erabileraren araudia inkardinatzeko marko juridikoa da. Era berean, lege horrek aintzat hartzen ditu, aldez aurretik, energia eolikoa sortzen duten parkeen kokalekuak.

Zioen azalpenean adierazten denez, lurralde antolamenduan sartzen dira, batetik, diseinatu eta gauzatu daitezkeen jarduera multzoak, lurzorua eta bertako baliabideak zentzu gehiagoz erabiltzeko; eta, bestetik, lurraldeko espazioetan eragingo duten ekimenen artean ezarri behar diren harremanen definizioa.

Lege horretan, EAEko lurraldea antolatzearen, zehaztu diren tresnak honako hauek dira:



- a) Lurralde Antolamendurako Ildoak
- b) Lurralde Plan Partzialak
- c) Lurralde Plan Sektorialak

LAELaren helburua da lurralde antolamendurako politika diseinatzea, lurzoru mota bakoitzaren erabilera onargarriak edo sustagarriak zehazteko, lurzoru motaren arabera; eta horrela lortzen da, besteak beste, azpiegitura egokia sortzea, natur baliabideak arduraz kudeatzea eta ingurumena errespetatzea. Bestalde, Lurralde Antolamendurako Legean ezartzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde antolamenduaren oinarritzko ildoak eta marko juridikoa, lurraldean eragina duten jardueren koordinazioa bermatzeko balio duten antolamendu tresnak, irizpideak eta prozedurak definitzeko eta arautzeko.

Gainera, lege hori da oinarria eta bidea antolamendurako tresnak bata bestearen atzetik eratzeko, hautatu ereduaren arabera. Horrela, EAEko lurraldea erabat moldatu ahal izango da.

2.1. Euskadiko Lurralde Antolamendurako Ildoak (LAI)

Lurralde Antolamendurako Ildoek erreferentzia marko orokorra osatzen dute, LAELek araututako antolamendu tresnak formulatzeko, eta baita lurzoru erregimenaren legerian aurreikusitako antolamendu planak formulatzeko ere. Horregatik, Administrazio Publikoek (erkidegokoek, foralek zein tokikoek) aurrera eraman ditzaketen plan, programa eta jarduerak, lurraldean eragina badute behintzat, Ildoetan esaten dena errespetatu beharko dute.

Gauzak horrela, Lurralde Antolamendurako Ildoen funtzioak honako hauek dira:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko politika eta/edo plan ekonomikoen araberako irizpideak eta arauak formulatzea, modu globalean eta erlazioak osatuz, Erkidegoan lanean ari diren agente publikoen zein pribatuen jarduera ekonomikoen eta sozialen finkapen prozesuak bideratzeko eta arautzeko. Eta hori, Euskadirentzat interesgarria eta beharrezkoa den lurralde oreka bermatzearren eta lurralde eremu egokietara jarduera ekonomikoak erakartzeko baldintza aproposak sortzearren.
- b) Erreferentzia markoa osatzea, lurraldearen eta espazioaren antolamenduaren gainean. Eta hori formulatu eta aurrera eramateko, batetik, Autonomia Erkidegoaren lurretan jardun behar duten politikak; eta, bestetik Foru Aldundien eta udalen hirigintza jarduera. Beraz, marko horren helburua da jarduera horiek guztiak koordinatzea eta bateragarri izan daitezen bermatzea.

- a) Aurreikustea zein izango diren Estatuarekin elkarlanean beste Autonomia Erkidegoetan egiteko lurralde jarduerak. Eta, zentzu horretan, beharrezko diren hitzarmenak edo akordioak gauzatzeko oinarriak eskaintzea.

2.2. Lurralde Plan Partzialak (LPP)

LAIek lurralde eta hirigintza tresnak formulatzeko erreferentzia marko orokorra osatzen badute ere, horiek LPPen bidez garatzen dira.

LAIetan planteatzen den lurralde eredia elementu hauen bitartez osatu da: inguru fisikoaren antolamendurako eta finkatze sistemetarako proposamenak, eta azpiegituren eta ekipamenduen antolamendurako erreferentziak. Hori guztia, kontuan hartuta zein diren LPPen bidez burututako lurralde antolamenduaren eragina jasoko duten eremuak.

Eremu horiei Area Funtzionalak esaten zaie, eta LAIen arabera, zehaztu egin behar dira. Izan ere, *“arazoak analizatu eta antolamendu estrategiak aplikatu nahi badira, komeni da erdi mailako lurralde eskala izatea, tamaina fisiko eta funtzional egokia duena”*.

Gaur egun, LPPrik ez dago onartuta. Hala ere, bederatzi LPPen Aurrerapenak bideratzen ari dira: Gipuzkoako Area Funtzionaletan sei eta Araban hiru. Eta Bilbo Hiririari dagokion Area Funtzionalako LPPa, berriz, alegazio fasean dago.

2.3. Lurralde Plan Sektorialak (LPS)

Legeko Zioen Azalpenak dagokion atalean, “Lurralde eta Sektorea Planak” izenburupean, honako hauek agertzen dira: batetik, lurraldean eragina duten sektore antolamendurako tresnak, Eusko Jaurlaritzako Sailek eta Lurralde Historikoetako Foru Organoek burutuak; bestetik, Estatuko Administrazioak eta Administrazio horren pean dauden entitateek eta erakundeek Autonomia Erkidegoan sustatu beharreko planak eta proiektuak.

Lurralde Plan Sektorialak arautzen dira, batetik, Legearen II. Tituluko III. Kapituluan (16. artikulua eta hurrengoak); eta, bestetik hainbat Xedapen Gehigarrietan eta Aldi Baterako Lehen Xedapenean.

Lehendabizi, arau horien arabera, Lurralde Plan Sektoriala lurralde marko orokorrean egoki txertatzeko (marko hori LAIek zehazten dute eta LLPek garatu), Plana egituratzeko eskumena duen organoak (kasu honetan, Industria, Merkataritza eta Turismo Saila) Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta

Ingurumen Sailarekin kontsultatu behar du, indarreko lurralde antolamenduak eskaintzen dituen alternatiben, konponbideen eta aukeren inguruan, sektore planifikazioaren xede diren obrak kokatzeko.

Bestalde, gai berezia dugu eskuartean, udalari soilik ez dagokion gaia. Horregatik, Legearen Lehen Xedapenak 22. artikuluan agindutakoari jarraiki, Lurralde Plan Sektorial horren erabakiek modu berebean eragingo die lurzoru erregimenaren gaineko hirigintza planei.

Horretarako, eta 15.2 artikulua araber (22.ak hara bidaltzen baikaitu), Lurralde Plan Sektorialak zehaztu behar du hirigintza planetako zein puntutan izango duen eragina. Baina, betiere, udalei aukera utzi behar zaie beharrezko prozedurak has ditzaten, erabaki horiek beren udal plangintzetan txertatzeko.